

## **BOLUTARIOTZA PROGRAMA**

### **INGURUMEN SENTSIBILIZAZIOA ETA DIBULGAZIOA**

#### **PROGRAMAREN HELBURU OROKORRA**

Bolondresak ontziaren mantenimendu orokorraren eta nabigazioen parte izatea.

#### **PROGRAMAREN DESKRIBAPENA**

MATER gaur egun ingurumen hezkuntza zentru berritzaile bat da. Gizartea ingurumenaren babesean eta kontserbazioan aktiboki inplikatzeko bilatzen duen museo Ekoaktibo bat da. Esperientzia paregabeen bidez gizartea natura-ingurunera gerturatzea eta lotzea bilatzen du, modu honetan ingurunea ezagutu, maitatu eta kontserbatu dezaten. Hori guztiagatik, formakuntza eta sentsibilizazio jarduerak antolatzen dira, gure natur hondareari eta ingurumen arazoari buruzko informazio zabalpena egiteaz gain.

Bizipen hauek eremu ezberdinetan garatzen dira; inguruko itsasertzean, ontzi-museoan bertan eta kosta inguruan, gainera sentsibilizatu behar den jendartekoa dagoen eremuetara ere joaten gara (hauek ikastetxeak, azoka gunek eta abar izan daitezke).

Bolondresen jarduteak eragin hirukoitza izan dezake Castrok esanten duen moduan (2000): « zuzenean inguruaren gainean, honen kalitatea hobetzen; bere buruarekiko, ingurumenarekiko onuragarriak diren jarrera eta portaerak hartuz; eta gainontzekoentzako agente bitartekari bezala, ingurukoiei eragin eta hezi diezakeelarik modu zuzen edo ez-zuzenean».



## METODOLOGIAREN LABURPENA

### KONPROMEZU MAILA

- Puntuala

### BARNE HARTZEN DITU

- Eginbeharren inguruko formakuntza eta orientazio zehatza.
- Eginbeharrak garatu ahal izateko materialak.
- Tekniko baten ikuspenean egotea jardueran zehar.
- Bolondresgotza aseguruua.
- Elkarrekiko lankidetzeta-hitzarmena.
- Programan parte hartu izanaren aitortpena.

### BETEBEHARREN DESKRIBAPENA

Programa honen esku dauden eginbeharrak jarduera ezberdinetan monitore bezala edo logistika laguntzan bideratzen dira.

Adierazgarriak dira urteko errepikatzen diren eta bolondresen laguntza behar duten ekitaldi hauek:

- ZERO ZABOR URETAN: MATERen portuz portu igaroz garatzen den itsaskanpaina
- Ekitaldi jendetsuak: Itsas festibalak eta azokak

## BOLONDRESEN PERFILA (Adina, jakintzak, gaitasunak, hizkuntzak...)

### 1. Eskatzen diren trebetasuna

- Taldean lan egiteko jarrera
- Jendaurreko jakin-egona
- Motibazioa
- Pazientzia eta konstantzia

### 2. Balioetsitako gaitasuna

- Hizkuntzak: euskera, ingelesa, frantsesa
- Logistika gaitasunak: sukaldaritza, itsas kultura jakintza...

### 3. Interesak

- Ingurumen eta biodibertsitate kontserbazioa
- Ingurumen arazoaren irtenbide bilaketa
- Eguneroko ikaspenekiko interes eta jakin mina
- Euskal kostako ondare kulturala


### 4. Lekua eta iraupena

Boluntariotza programa honen jarduerak MATERen edo sentsibilizazio jarduerak hauek garatuko diren eremuetan eramango dira aurrera (azokak, itsasertza...). Boluntariotzaren konpromisu iraupena jarduerari edo kanpainari dagokion iraupenaren arabera izango da; eta bolondresaren atxikimenduak luzapena izan dezake automatikoki bolondresak idatziz bere baja nahia adierazten ez duen bitartean.

## PROIEKTUAREN ARDURADUNA

Markel Elizalde

## HARREMANETARAKO INFORMAZIOA

 619 814 225

 komunikazioa@mater.eus